



2019

**Literatura
lehiaketa haurrentzat
(30. edizioa)**

30 Certamen literario
infantil en euskera

barañain.eus



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala



Udalaren euskara
zerbitzua
Servicio municipal
de euskera

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



euskarabidea

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

30. Certamen Literario Infantil en Euskera

Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2019ko udaberrian antolatutako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 163 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

EPAIMAHAIA - JURADO

LEHENDAKARIA - PRESIDENTA:

Ainhoa Oyaga Azcona

EPAIMAHAIKIDEAK - MIEMBROS DEL JURADO:

Alaitz Institutuko irakasleak - Profesorado Instituto Alaitz

Josu Goienetxe

Edurne Pérez Landa

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak - Profesorado C.P. Alaitz

Nahia Urrutia Riezu

Gurutze Hermoso de Mendoza

Sahats-IKA Euskaltegiko irakasleak - Profesorado Euskaltegi Sahats-IKA

Ascen Argandoña

Josu Asurmendi

Aitziber Garralda

Eider Canales González

Barañaín Institutuko irakasleak - Profesorado Instituto Barañaín

Amara Castañon

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2019. En total se presentaron 163 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA - EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

DISEINUA - DISEÑO Ttipi-Ttapa

INPRIMAKETA - IMPRESIÓN Kulturkari

LEGE GORDAILUA - DEPÓSITO LEGAL NA 1015-2016

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

30. Certamen Literario Infantil en Euskera

AURKEZPENA

Gure zorionik beroenak literatura lehiaketa honetan parte hartu duzuen guztioi, bereziki sarituak izan zaretenoi. Honako argitalpen honi esker zuen ipuin eta bertso paper zoragarri hauek partekatu ditzakegu, guztion gozamenerako.

Oraingo honetan saritua ez bazara izan, gonbita luzatzen dizut berriro saia zaitezten, behar bada hurbil ibilia zara baina horren berri jakin gabe, gogoan hartu ahaleginak saria dakarkiela beti berekin.

Badira 30 urte jada literatura lehiaketa hau sustatzen gabiltzala, eta denbora guzti horretan zenbat eta zenbat istorio kontatu dituzuen jabetzeaz oso atsegingarria da guretzat. Hori guztia dela-eta, aurrera egingo dugu lehiaketarekin, maila gorenean jartzeko eta idazle talentudun berriak aurkitzeko eta aitortza erakusteko haiei.

Nire agurrik beroena eta esker ona honako esperientzia zoragarri hau ahalbidetu duzuen guztiontzat.

PRESENTACIÓN

Nuestras más sinceras felicitaciones a todos los participantes de este certamen literario, principalmente a los premiados. Gracias a esta publicación hemos podido compartir vuestros maravillosos cuentos y bertsos escritos para que sean del deleite de todos.

Si en esta oportunidad no has sido premiado, te invito a intentarlo nuevamente, tal vez estuviste cerca y no lo sabes, considera que el esfuerzo siempre tiene su recompensa.

Llevamos 30 años fomentando este certamen literario y para nosotros es muy gratificante constatar la cantidad de historias relatadas en todo este tiempo. Por esta razón queremos seguir adelante con el certamen, para potenciarlo a su máxima expresión y seguir así descubriendo y reconociendo a nuevos y talentosos artistas de la pluma.

Mis más cordiales saludos y agradecimientos a todos los que han hecho posible esta maravillosa experiencia.



Iz. / Fdo.

PABLO ARCELUS CAVALLERO

Kultura eta Euskara Informazio Batzordeburua
Presidente de la Comisión Informativa de Cultura y Euskera.

30. Certamen Literario Infantil en Euskera

MODALIDAD CUENTOS

ADIKZIOA - Noa Luqui Bretón

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. E maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 3º E curso

2019ko martxoaren 8a, Oihanen 10. urtebetetzea zen. Lagun asko zituen baina bere lagun mina Noa zen. Noa Oihanen etxera joan zen zoriontzera, iritsi bezain pronto Noa Oihanen logelan sartu zen.

Oihani mugikor bat oparitu zioten bere urtebetetzea zela eta. Noa bere logelan sartu eta Oihan zoriondu zuen. Oihan mugikorrarekin jolasten zegoelako Noataz paso egin zuen. Noa Oihanen etxetik atera eta bere aita eta bere amarekin parkera joan zen. Hilabetea pasa ondoren Oihan mugikor-adiktoa bihurtu zen, eta etxetik ez zen ateratzen. Noaren amak Noa triste ikusi zuen eta galdetu zion:

- Noa, zer gertatzen zaizu?

Kezkaturik erantzun zion:

- Oihan mugikorrari adikto dago eta ez dit kasurik egiten. Noaren amak Oihanen amari deitu zion. Noaren amak, Oihan psikologoarengana eraman behar zutela jakinda, Noari dena adierazi zion. Noa, hori entzun ondoren, lasaiago gelditu zen. Hurrengo egunean psikologoak Oihani natura udaleku batera joatea gomendatu zion. Aste Santua iritsi zen eta Oihan, bere ama eta bere aita, autoa hartuta, natura udalekura abiatu ziren.

Natura parkearen bidean Oihan mugikor partidari buruz oihu egin zuen:

-Eeezz!!!

Oihanen aita despistatu zen, eta istripu bat izan zuten. Oihanen aita eta ama hil ziren.

Istripua pasa ondoren Oihanek ez zuen nahi mugikor batez ezer jakin nahi.

Oihanek zortea izan zuen, eta Noa eta bere familiak adoptatu zuten.

LEONTZIO - June Carlos Hernández

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.E maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 3ºE curso

Bazen behin Afrikako oihanean bizi zen lehoi txiki bat, bere aitak Leontzio deitzen zion txikia zelako. Lehoi guztiek bezala ile asko zeukan eta bere amarekin lasterketak egitea gustatzen zitzaion, baina txikiena zenez, beti galtzen zuen. Lagunekin ere gustuko zuen jolastea, beti poz-pozik itzultzen zen etxera.

Baina egun batean ez zen horrela izan, triste iritsi zen etxera eta gurasoek kezkaturik galdetu zioten:

- Zer gertatzen zaizu Leontzio?

Leontziok negarrez erantzun zien:

- Ba, nire lagunak esan didate itsusia naizela! ile asko dudalako.

Aitak azaldu zion guztiak ez garela berdinak, horrela azaldu zion:

- Begira Leontzio, zuk ile asko daukazu, Elefanteak belarri oso handiak ditu, Jirafak lepo

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

IPUINAK MODALITATEA

luze-luzea dauka..... eta horrela oihaneko animalia guztiekin.

Lehoia, aitak esandakoa entzutean, oso pozik jarri zen. Hurrengo egunean aitak esandakoa bere lagunai kontatu zien. Bere lagunak konturatu ziren guztiek zerbait desberdina zeukatela eta itsura alde batera utzita jolastera joan ziren lagun guztiak.

Egun horretatik aurrera ez zioten berriro ileari buruz deus esan, argi geratu zitzairen guztiak desberdinak zirela eta ziren bezala politak zirela.

ERRALDOI ESNATU ZEN NESKA - Iratxe Villafranca Ayesa

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 3ºF curso

Bazen behin Naroa izeneko neska bat 9 urte zeuzkana. Naroak 10 anai-arreba zeuzkan. Naroaren anai-arrebek ez zioten beraiekin joaten uzten txikiena, eta altueraz txikia, zelako.

Egun batean, Naroa negarrez zegoen eta anai batek esan zion:

- 10 urteekin gurekin etorriko zara -eta joan zen.

Naroa harrituta gelditu zen. Hilabeteak joan hilabeteak etorri eta Naroaren urtebetetzea ailegatu zen. 10 urte zeuzkan eta anai-arrebek esaten zioten nahiz eta 10 urte bete zituen, txikiegia zela beraiekin joateko.

Naroa joan zen azti batengana eskatzeko handia egiteko zerbait, eta aztiak pozoi magiko bat eman zion.

Naroak, oheratu baino lehen, poz-pozik bota zion afariari eta den-dena jan zuen.

Hurrengo egunean, esnatu zenean, erraldoi bihurtuta zegoen eta esnatu zituen anai-arrebak:

- Orain ahal dut zuekin joan?

Anai-arrebek esan zuten:

Ez, zapalduko gaituzulako.

Lau katu eta lau txito ipuina bukatu eta kitto.

ARDI BELTZAK - Aitor Cordon Muñoz

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 3ºF curso

Bazen behin ardi beltz bat zuria izan nahi zuena bere lagunak bezala eta beti esaten zion bere amari zuria nahi zuela izan, baina amak erantzuten zion ezin zuela izan ardi zuri bat. Egun batean, ardi beltza joan zen margolari baten etxera eta esan zion zuriz margotzeko eta erantzun zion baietz.

Etxera bueltatu zenean amari esan zion:

30. Certamen Literario Infantil en Euskera

MODALIDAD CUENTOS

- Begira ama zure umea naiz eta zuria naiz.

Baina amak ez zion sinetsi eta ostikoz kanporatu zuen.

Arditxo beltzak esan zion bere buruari hobe zela beltza bere amarekin bueltatzeko. Margolariarengana bueltatu zen eta esan zion ezabatzeko, baina bazegoen arazo bat: ezin zela, margoa lehortuta zegoelako. Margoa bakarrik kendu ahal zen produktu batekin, baina ez zeukan produktu hori margolariak, eta ardi beltza hasi zen herritik bilatzen. Ardi beltzak pentsatzen zuenean ez zuela lortuko aurkitu zuen. Kolore zuria kendu zuen. Joan zen etxera, amak dena onartu zuen, eta ardi beltzak ikasi zuen onartu behar dela bakoitza dena munduan.

DINOSAURO BOTERETSUA - Duna Villar Yaniz

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.E maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 4ºE curso

Orain dela milaka eta milaka urte, bazen dinosauro txiki bat bi urte zituen. Sumendien artean bizi zen. Hiru ume bihurri ere bizi ziren garai hartan, eta horietako bat ni nintzen. Herri txiki batean bizi ginen hirurok. Nire bi lagun minak ziren: Amaia eta Aitor. Bikiak ziren eta oso ondo aritzen ziren, baina etxean bihurrikeriak egiten zituzten. Asko gustatzen zitzaizkien dinosauroak, baita niri ere. Baina ez genekien benetakoa ala gezurrezkoa ziren.

Neguko egun batean agertu zen nire etxean. Besoetan hartu, korrika jantzi eta Amaia eta Aitor abisatzera joan nintzen haien etxera.

- Amaia, Aitor! -oihukatu nuen.

- Begira, dinosauro hau nire etxean zegoen, baina ez dago pozik, triste baizik!

Pentsatzen hasi ginen hirurok:

- Baina, zergatik egongo da dinosauro hau triste?- Galdetu genuen hirurok batera.

- Badakit! -esan zuen Amaiak.

Hemen hotza egiten du baina sumendien artean beroa. Bat-batean, sumendiak sua eta kea botatzen hasi ziren eta klima aldaketa izugarria sortu zen herrian. Adinekoek klima aldaketa horrek ez zuela garrantzi handirik esaten zuten, baina oker ziren. Klima aldaketa hori inoiz baino indartsuagoa zen. Dinosauroa guztiz aldatu zen: kolorez, tamainaz... eta gainera poz-pozik jarri zen; gu, berriz, gaixotu egin ginen. Dinosauro horrek botere bereziak zituen baina guk ez genekien hori. Hauek ziren bere botereak:

1-Ikusezina bihurtzea.

2-Hegan egitea.

3-Jendea sendatzea.

Dinosauroak hau esan zuen:

- Ze botere erabiliko dut?

- Badakit!- bururatu zitzaion bat-batean.

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

IPUINAK MODALITATEA

Dinosauroak hau esan zuen:

- Jendea sendatzekoa erabiliko dut!

Baina horretarako, hitz hauek esan zituen dinosauroak:

- Txiriba txiribo oraintxe bertan esnatzea!

Horrela egin zuen eta Amaia, Aitor eta ni sendatu egin ginen.

Azkenean, dinosauroari eskerrak eman eta maskota moduan hartu genuen etxean.

AZTI-ELEKTRIKOA- Ibai Uriz Gaztanbide

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.E maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 4ºE curso

Bazen behin azti bat elektrikoa izan nahi zuena, eta horretarako ikastaro batzuetara joaten zen. Elektriko titulua lortzeko, ur azpian konjuru bat egin behar zuen maskara bereziekin. Hori lortzeko marrazo baten letagin bat behar zuen. Ur azpian izan behar zen arrazoi batengatik: Konjurua gaizki aterako balitz, ez zen ezer gertatuko.

Uretara bota zenean, urezko gaztelu bat aurkitu zuen eta hortik kobazulo bat non marrazo bat bizi zen. Aztiak galdetu zion ea letagin bat eman ahal zion asko zituelako, eta ezetz esan zionean, aztiak bat kentzen saiatu zen, eta horregatik borrokan hasi ziren, oso zaurituak bukatu zuten.

Kraken bat ere bizi zen hortik, sendagilea zena. Aztiak hau esan zion marrazoari:

-Krakenaren laguntza behar dugu!

- Ongi da! – erantzun zion marrazoak.

Elkarri barkamena eskatu zioten eta marrazoari letagin bat erori eta aztiari eman zion.

Aztiak asko eskertu zion eta konjurua egin zuen.

Orain marrazoarengana askotan joaten da bisitan, oso pozik eta gustura.

NEREA ETA BERE TXAKURRA - Ainhoa Puyol Azqueta

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.F maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 4ºF curso

Bazen behin, Nerea izeneko neska bat txakur bat zeukana, Lorea izenekoa. Bikote hau New Yorkeko auzo txiro batean bizi zen. Haien egoera larria zenez, kalean bizitzen jarraitu zuten.

Ez zuten dirurik haien aita eta ama hil egin zirelako. Kalean hotz asko egiten zenez, Lorea gaixotu zen. Nereak etxe bat eraiki nahi zuen, Lorea sendatzeko, etxe batean hotz egiten ez duena. Orduan, kaleko kartoi zati batzuekin txabola txiki bat eraiki zuen. Kartoiak bilatzen zituzten bitartean, hauts batzuk aurkitu zituen. Hautsak hartu zituen baina ez zekien zertarako balio zuten.

30. Certamen Literario Infantil en Euskera

MODALIDAD CUENTOS

Etxeko bidean, nahi gabe, hiltzeko zorian zegoen lore bati hautsak erori zitzaizkion eta lorea bat-batean ongi jarri zen. Momentu horretan Nerea konturatu zen hauts magikoak zirela. Hauts horiek gauzak konpontzen zituzten!

Hori ikusita, bere txabolara joan zen eta hauts magikoak bota zizkion. Hautsak botatzen zituen bitartean ez zekien ziur zer gertatuko zen bere txabolarekin eta bat-batean gaztelu erraldoi batean bihurtu zen bere txabola.

Hiru egun pasa ondoren, Nereak eta Loreak New Yorkeko txiro guztiei laguntzea erabaki zuten. Horretarako, hauts magikoak New Yorkeko txiro guztien artean banatu zituzten. Modu horretan, denak etxe batean pozik bizitzeko aukera izango zuten.

Urteak pasa dira Nereak bere gaztelua lortu zuenetik, eta New Yorkeko pertsonak ere lehen baino hobeto bizi dira berari esker.

MIKE ETA MOKOTXURI - Markel Jimenez Goicoechea

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.F maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 4ºF curso

Bazen behin, mutiltxo bat 9 urterekin Zeelanda Berrian bizitzen zena eta Mike zuen izena. Mikeri gustatzen zitzaizkion animaliak, batez ere, Perry bere txakurra. Txakur handia zen eta oso maitekorra. Biak abenturazaleak ziren. Mikek begi urdinak zituen eta ile beltza. Baserri batean bizi zen eta eskolara joatea gustatzen zitzaion. Lagun asko zituen baina arazoa zen eskola urruti zegoela eta ordu bat behar zuen eskolara joateko. Gehien-gehien gustatzen zitzaiona zen Perryrekin abenturak izatea.

Egun batean abentura batean zeudela amildegi baten ondoan aurkitu zuten arrautza handi bat. Hartu eta gero etxera eramán zuten eta leku bero batean gorde zuten. 5 egun pasa eta gero arrautza apurtzen hasi zen eta moko handi bat atera zen mantxa zuri batekin, putre bat zen! Mokokuri deitu zioten eta Mikek ongi hazteko zizareak eman zizkion. Putreak gau guztietan soinua egiten zuen eta Mikek uste zuen ama faltan botatzen zuela.

Gau batean, pun!!!

Mike soinua entzun eta gero kanpora atera zen. Putre handi bat zegoen goian. Putreak 2 metroko hegoak zituen, Mikek izututa aitari deitu zion eta Perry ez zen gelditzen zaunka egiteaz. Aitak eskopeta bat atera eta Mikek esan zion ez hiltzeko putre txikiaren ama zelako. Mike joan zen putre txikiaren bila, putre txikia kanpoan utzi eta Mike, Aita eta Perry barruan sartu ziren. Ama putrea teilatutik bera joan zen eta putre txikia, hegan egiten, etxera joan zen. Mike triste geratu zen. Hilabeteak pasa eta gero uda etorri zen, Mike eta Perry jolasten zeuden amildegi berdinean. Orduan Mike irristatu eta amildegitik erori zen eta maki geratu zen. Perryk zaunka egiten zuen eta bat-batean putre han-

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz IPUINAK MODALITATEA

di bat agertu zen, galtzetatik hartu zuen eta gora igo zuen. Mike konturatu zen putrea mantxa zuri bat zeukala mokoan, Mokokozuri zen!
Eta momentu hartatik aurrera Mokokozuri, Mike eta Perry lagunak izan ziren.

EUSKAL MUSEOAREN MISTERIOA - Nahikari Elosegui Domínguez

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.E maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 5ºE curso

Aspaldi-aspaldi gaur egungo Euskal Museoan gertatu zen magikoa den misterio bat. 1999. urtean gertatu zen. Euskal museoan Euskal Herriko Bitxikeriak eta Monumentuak zeuden, oso handia zen eta polita baita ere, munduko pertsona guztiak etortzen ziren museoa ikustera.


Egun batean Charli izeneko mutil bat bere familiarekin etorri zen museoa bisitatzera, ailegatu zirenean Charli aspertuta eta despistatuta zegoen. Orduan bere familiarik bereiztu zen. Bat-batean lurrean tapa bat ikusi zuen. Berak ez zekien ezer, orduan tapa hori ireki zuen. Hitzik gabe geratu zen, ez zekien zer zen hori, bueno nik esango dizuet; hau deitzen zen “Amaieragabeko Putzua”.

Bat-batean Charli putzura erori zen baina erortzean tobogan bat bezalakoa zen. Han euskal mitologiako pertsonaiak ikusi zituen: Herensugeak, Lamiak, Atso magikoak, Tartaltoa, Galtzagarriak...

Charli oso pozik zegoen. Hau zen opari magikoa eta polita.

Momentu batean Charli bere familian pentsatu zuen eta triste eta negarrez hasi zen. Euskal Mitologiako pertsonaiek entzun zuten eta denen artean Charli lagundu zuten etxera bueltatzera. Gaur egun Charli Mirrorrek 20 urte ditu eta oraindik ez dio inori kontatu gertatu zitzaiona. Oraindik egongo da Amaieragabeko putzua?

30. Certamen Literario Infantil en Euskera
MODALIDAD CUENTOS



30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

IPUINAK MODALITATEA

SUJAILAREN BIDAIA - Uxue Arbizu Diosdado

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.E maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 5ºE curso

Bazen behin Sujaila deitzen zen neska bat. Marokoarra zen, eta itsua ere bai. 7 pertsonako familia batean bizi zen. Familiak ez zuen maite itsua zelako orduan eskolara ez zuten eramaten, ez zuten medikura eramaten itsua ez izateko...

Orduan ferry batean Malagara joatea erabaki zuen. Goizeko 3:00etan esnatu zen. Moxtilan bere ahizparen argazki bat eraman zuen, bere ahizpa Sajulak bera asko maite zuelako eta babesten zion pertsona bakarra zelako, "Cus-cus" ere eraman zuen, bere janari gustukoena zelako eta azkenik Fatimaren (Marokoko birjina) domina eraman zuen, bere amonak oparitu ziona. Portura joateko momentua iritsi zen, orduan ferryko upeltegian sartu zen aprobetxatzen han lan egiten zuten pertsonak gosaltzera joaten zirela. Upeltegian 32 ordu ezkutuan egon zen (egarri zen, izerditan zegoen...). Gose zelako "Cus-cusa" jan zuen. Bidaia luze baten ondoren ferrya Malagara iritsi zen eta ahizpa Sajula faltan botatzen zuen, bere argazkia ikusten geratu zen. Gose handia zuelako gozotegi bateko edukiontzietara joan zen. Errege opileko errestoak jan zituen eta saria tokatu zitzaion. 3 desio eskatu zituen:

- Itsua ez izatea, lana bilatzea eta maite duen Malagako familia batekin egotea. Desioak ez ziren bete (kalezuloan bizi zen, lana ez zuen, itsu segitzen zuen...). Egun batean amona batek Sujaila ikusi zuen eta berarekin bizitzera joatea esan zion, orduan Sujailak baietz esan zion. Baina kondizio batekin uzten zion berarekin bizitzea, amonaren umea zaindu eta konpainia eman behar zion. Sujailak berriro baietz esan zion. Amonak lana aurkitu zion, janaria eman zion eta asko maite zuen Sujaila. Sujailak bere desioak ia bete zituen. Sujailaren ahizpak bazekien Sujaila Malagara joan zela eta bera ere joan zen. Horren ondoren amonak Sujaila adoptatu zuen, orduan itsutasuna kentzeko terapietara apuntatu zuen. Itsutasuna kendu zion. Sujailak 20 urte zituenean bere familia biologikoari egin zuen guztia kontatu zion. Orduan Sujailaren familia biologikoa damutu zen Sujailari egindako gauzaz eta Sujaila babesten bukatu zuten.

JANTZAREN OPANA - Ane Arbizu Diosdado

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.F maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 5ºF curso

Bazen behin, Jantza izeneko txinatar pobrea zena eta Pekinen bizitzen zen, Txinan dagoela. Beti sukaldaria izan nahi zuen baina bere familiak dirua ez zuenez ezin zuen sukaldaria izan, orduan arroza landatzen lan egiten zuen.

30. Certamen Literario Infantil en Euskera

MODALIDAD CUENTOS

Behin batean, egunkari batean, lurrean zegoena eta oso zaharra zena, Arbizu Nafarroa-ko txistorrari buruzko artikulu bat irakurri zuen. Lortu behar zuela pentsatu zuen.

Herririk ondoen banku bat zegoen eta nola berak dirurik ez zuen, bankuko Xioko ize-neko dependienteari promesa egin zion, dirua irabazten zuenean eta bere lehenengo soldata ematean berak utzitako dirua bueltatuko ziola. Xiokori pena eman zion eta Jantzaz fidatu zen.

Eguna ailegatu zen eta hegazkina hartu zuen baina... Hegazkin okerra hartu zuen eta Parisera ailegatu zen.

Jendeari galdetzen zionean Arbizu herria non zegoen, jendeak ez zion ulertzen eta esaten zioten Parisen zegoen bakarra “La torre Eiffel” eta krepak zirela.

Momentu horretan Jantzak pentsatu zuen: “Zer egin ahal dut! Okertu naiz!”. Orduan, Jantza jatetxe batera joan zen eta gezurra bota zion nagusiari, sukaldari famatu bat zela esanez. Azkenean hor lan egitea lortu zuen platerak garbitzen.

Sei hilabete pasa eta gero dirua lortu zuen eta jatetxeko nagusiari esan zion joango zela. Tristura askorekin agurtu zuen eta tren bat hartu zuen. Hori bai! Oso ongi begiratu zuen tren okerra ez hartzeko.

17 ordu ondoren Arbizura ailegatu zen eta jendeari galdezka hasi zen. Patxi harakin famatua non bizitzen zen esateko, ordea, jendeak esan eta lagundu zuten.

Patxiren etxera ailegatu zenean, lau esaldirekin gaztelaniaz, bere opana txistorra egiten ikastea zela esan eta Patxik esan zion berak erakutsiko ziola eta bere harategian eta bere etxean lo egiten utziko ziola baina euskara ikasi behar zuela. Jantzak, oso pozik, baietz esan zion. Patxik euskalategia ordaindu zion.

Hilabeteak pasa ziren eta Patxik Jantzari esan zion ikusten zuela prestatuta zegoela txistorra txapelketa batera joateko. Gainera, txapelketa irabazten bazuen etxe bat eta dirua oparitzen zioten eta gainera, euskara ondo zekien, euskalategian ikasitakoa! Jantzak baietz esan zion.

Eguna ailegatu zen eta Jantza urduri, txistorra-txapelketara joan zen. Mantala jantzi eta sukaldatzen hasi zen.

Denbora amaitu zenean, hamar pertsona kanporatu zituzten baina Jantza ez.

Finalera pasatu zen eta Lizarrako baten aurka lehiatu zuen. Bat-batean lehiaketa hasi zen. Bi ordu pasa eta gero epaileek txistorra dastatu zuten eta Jantza irabazlea zela esan zuten. Jantza oso pozik jarri zen, eta oparia eman zioten.

Etxearekin oso pozik geratu zen baina ez zen ahaztu diruaz. Promesa bat zuen Xioko bankuko dependientearekin. Ordea, korreoz dirua bidali zion.

Azkenean, Arbizun bizitzera gelditzea, bere etxe berrian, txapelketan irabazitakoa, erabaki zuen eta harategi bat ireki zuen. Harategia inauguratzeko jendea gonbidatu zuen eta txistorrako bokatak egin zituen Patxiri omenaldia eginez.

Egia ala gezurra... bi begi artean sudurra.

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz IPUINAK MODALITATEA

ELKARREKIN HOBETO - Josu Barber Ducay

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.F maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 5ºF curso

Bazen behin Rodolf izeneko sukaldari bat. Bere herriko sukaldaririk hoberena zen eta jatetxe bat irekita zuen, Herriko Zaporea izenekoa. Denetarik jaten zen han, adibidez, txuletoia patatekin.

Egun batean Maria Luisa izeneko beste sukaldari batek ireki zuen jatetxe bat Rodolfen herrian. Oso ona zen sukaldaritzan eta horregatik egiten zion kompetentzia Rodolfi.


Bi sukaldarien artean erabaki zuten txapelketa bat egitea jakiteko nor zen hobea sukaldaritzan. Galtzen zuenak herri horretatik joan beharko zen.

Lehenengo proban bezero gehiago izan behar zituzten besteak baino, aste oso batean. Astea bukatu zenean ikusi zuten biek 550 bezero izan zituztela.

Geroxeago erabaki zuten txapelketa batera joatea eta urrunen ailegatzzen zena irabazlea izango zela. Biak bere errezetarik hoberenak aurkeztu zituzten eta horrela finalerdiraino ailegatu ziren. Finalerdia ailegatu zenean esan zieten proba hori binaka egin behar zutela: Rodolf Maria Luisarekin eta Penelope Peperekin, eta irabazten zuenak finalera joan behar zen bere aurreko probako bikotearen kontra.

Rodolfok eta Maria Luisak irabazi zuten. Haiek aurkeztutako platera hau zen: Txuletoia pikillo piperrekin eta patatekin.

Hain ongi egin zuten lan bata bestearekin, erabaki zutela uztea txapelketa eta jatetxe bat egitea bien artean. Biek batera ez zuten 550 bezero astero, 1.550 baizik.



30. Certamen Literario Infantil en Euskera

MODALIDAD CUENTOS

SARAIK NESKAK DITU GUSTUKO - Eider Astiz Isasi

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.E maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 6ºE curso

Munduan beste asko bezala, bazen Sarai izeneko neska bat, neska gustukoago zituen mutilak baino. Bera beltzarana zen, eta begi urdinekoa. Txikitatik ohartu zen neska zituela gustuko. Inori ez zion esan, bestela arraroa zela pentsatuko zuten.

Egun batean, eskolara Enara izeneko neska berri bat etorri zen. Sarairi oso jatorra eta polita iruditu zitzaion. Egunak pasa eta, lagun minak bihurtu ziren. Inauteriak hurbiltzen ziren eta bikotea dantzatu behar zuten. Enarak eta Saraiak galdetu zioten irakasleari ea elkarrekin dantzatu ahal zuten. Irakasleak –Aitor- ezetz esan zien, bikoteak neska eta mutila izan behar zutelako eta bi neska elkarrekin dantzatzea itsusi geratzen zela esan zuen. Sarai eta Enara haserretu egin zirenez, klase guztiaren aurrean esan zuen Saraiak:

- Ez dut ulertzen zein arraroa iruditzen zaizuen neska bat beste neska batekin egotea! – oihuka egin zuen Saraiak- Ba... gauza bat esan behar dizuet, nik Enara dut gustuko eta berdin zait zer pentsatzen duzuen.

Guztia esanda, Sarai oso ondo sentitzen zen bere buruarekin. Gela osoa isilik geratu zen Saraiak esandakoa bukatzerakoan. Irakaslea esandakoaz damutu zen, eta barkamena eskatu zien bi neskei. Lagunek ere onartu zuten gustu desberdinak zeudela, hasieran kostatu zitzaien ulertzea, baina azkenean dena ulertu zuten.

Azkenik, inauterietan, edonork aukeratu ahal zuen bere bikotea, neska ala mutila. Egun hartan, Enarak eta Saraiak oso ondo pasa zuten elkarrekin dantzatzen eta Enarak eskatu zion Sarairi ea bere bikotea izan nahi zuen. Saraiak pentsatu gabe baietz esan zion. Aditzeko belarririk duenak, aditu eta ikas dezala.

AMETS BAT - Nahia Luqui Bretón

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.E maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 6ºE curso

Bazen behin Nerea izeneko neska bat. Bere amets bat bete zuen eta, oraintxe, bere ametsaren gertaera kontatuko dizuet.

Nereari asko gustatzen zaio marraztea eta oso ondo marrazten du. Berari edozein gauza marraztea gustatzen zaio. Egun batean eskolako sarreran marrazketa txapelketa baten poster bat ikusi zuen. Eskola bukatu ondoren posterra hartu eta bere etxera korrika abiatu zen, bere amari dena kontatzeko irrikan. Amak txapelketan izena emateko animatu zuen eta horrela egin zuen.

Txapelketaren eguna iritsi zen eta Nerea oso urduri zegoen, ez zekien nortzuk gehiago

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

IPUINAK MODALITATEA

egongo ziren. Txapelketa hasi zen eta Nereak koadro oso oso oso polita egiten hasi zen, baina margorik ez zitzaion geratzen eta margo gehiagoren bila joan zen. Marrazketa txapelketan zegoen neska batek, Nerearen koadroak irabaziko zuela susmatzerakoan, bere margo bat hartu eta ZAS! margo guztia Nerearen koadroaren gainera bota zuen. Nerea itzuli zenean ezin zuen sinetsi, baina Nereak marrazketan magia egiten duenez konpontzen hasi zen. Eta listo, bere koadroa konpondu zuen. Epailleek hiru 10 eman zizkioten eta saria globo aerostatiko batean igotzeko bi sarrera ziren. Hurrengo egunean bere laguna Maria eta bera globo aerostatikora igo ziren, oso polita zen, kolore askotakoa. Beraiek bakarrik joaten ziren. Hainbeste igo zirenez hodeietan zeudela ematen zuen, baina kaioa bat etorri zen eta globo aerostatikoa apurtu zuen eta biak erori egin ziren, baina beste globo aerostatiko baten gainera erori ziren. Eskerrak! Horrela bizitza salbatu zuten. Globoan egindako bidaia egin zutenetik Nerearen gurasoek globo bat oparitzea erabaki zuten. Eta hau da guztiz espero dudana gustatzea eta ez ahaztea, ametsak bete ahal direla!

ESKUZABALA IZATEAREN BALIOA - Leire Cestau Lertxundi

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.F maila / 1º PREMIO: Educación Primaria 6ºF curso

Bazen behin, Richard izeneko mutiko bat. Richardek 13 urte zituen baina 7 urteko mutila zirudien, oso txikia zen. 1'35eko altuera zuen eta ilehoria zen. Bere gurasoak hilda zeuden eta aitonarekin bizi zen. Aitona oso aberatsa zen eta Richardi diru asko ematen zion, gehiegi agian. Richard oso berekoa zen eta, horregatik, ez zituen lagun asko. Egun batean, aitonak Afrikara joango zirela esan zion eta hiru hilabete igaro zituen gauza bera esaten:

- Afrikara noa! Afrikara noa! Entzun duzue? Afrikara noa!

Eta horrela jarraitu zuen Afrikara iritsi arte. Baina bidaia ez zen izango berak uste zuen bezalakoa.

- Non daude animalia basatiak? Eta paisaia ikusgarriak? Non, aitona, non? – galdetzen zuen behin eta berriz.

- Beste bidaietan, izango duzu aukera animalia eta paisaia zoragarriak ikusteko, baina oraingoan pertsona pobreei laguntzeko etorri gara. Guk diru asko dugu eta beraiei emango diegu – erantzun zion aitonak.

- Zer? A ze txorakeria aitona!

Richardek etxe barruan igaro zituen gelditzen ziren egunak; haserre. Ez zuen ulertzen aitonak egiten zuena eta debora galtze bat iruditzen zitzaion. 14 egun igaro ondoren, etxera itzuli ziren. Iritsitakoan, Richard, etxeko ganbarara igo zen. Ez zen horra inoiz sartu, baina bakarrik egoteko leku bat nahi zuen. Sartutakoan, aitonak gordeta zituen traste guztiak ikusi zituen. Haien artean, aitonak zituen bi jostailu bakarrak zeuden,

30. Certamen Literario Infantil en Euskera

MODALIDAD CUENTOS

bere bizikleta eta bere pilota.

- Ze jostailu gutxi nireekin konparatuta! – esan zuen.

- Nahikoak – erantzun zion aitonak ganbarako atetik begira.

Richardek ganbara behatzen jarraitu zuen. Argazki batzuk aurkitu zituen, batzuk gurasoenak eta beste zenbait aitonak txikitan aterarakoak. Richard negarrez hasi zen, aspal-di ez zituela gurasoen argazkiak ikusten eta beraiengan pentsatzean hunkitu egin zen. Gero aitonaren argazki bat ikusi zuen eta ahozabalik geratu zen.

- Aitona zu al zara? – galdetu zion Richardek.

- Bai txiki, ni naiz – erantzun zion aitonak.

Richardek ez zekien zer esan, aitona Afrikako pertsona horiek bezalako egoeran ikusitakoan harrিতuta geratu zen.

- Begira Richard, nik ere Afrikan ikusitako pertsonak bezala igaro nituen urte asko eta oso gogorra da. Badakit, nik azalduko banizu agian ez zenukeela ulertuko, horregatik erabaki nuen biok Afrikara joatea. Nik zorte handia izan nuen, oso familia jator batek lagundu zigulako. Badakit arraroa egingo zaizula, hasieran ulertzea kostatuko zaizula, badakit lagun asko ere ez dituzula eta gurasoen falta sumatzen duzula, baina saiatzen bazara, gauzak aldatuko dira eta besteen eta baita zure zorientasuna lortuko duzu.

Geroztik Richard eskuzabala izaten hasi zen eta lagunak egiten hasi zen. Orduan ulertu zuen eskuzabala izatearen balioa. Orain, Richard oso pozik bizi da, luxu gehiegirik gabe. Ez ditu gauza asko erosten, beharrezkoak bakarrik eta pobreak laguntzen dituen erakunde batean egiten du lan. Hori hala bazan, sar dadila kalabazan eta ez dezagula ahaztu eskuzabalak izatea pozik nahi badugu izan.

ESPERO EZ NUENA - Jare Biurrun Mendia

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.F maila / 2º PREMIO: Educación Primaria 6ºF curso

Bat-batean, nire alboetara begiratu eta leku berezi batean nengoela konturatu nintzen. Ez zen toki arrunt bat, laku baten barruan urperatuta nengoan. Dena ilun zegoen eta ez zen inor ikusten, ur azpian arnasa hartu nezakeen, nire gorputza begiratu nuen, ezkatat nituen, baita hegatsak ere, baina gainerakoa gizaki arrunt baten gorputza bezalakoa nuen.

Nire eskuinera begiratu nuen, eta alga batzuen atzean zerbait mugitzen ikusi nuen. Zer zen begiratzera joan nintzen, eta izaki itsusi eta beldurgarri batzuk ikusi nituen. Haien atzean, nire lagun mina zegoen soka batekin lotuta, konorterik gabe. Haren bila joan nintzen, baina izaki itsusi haiek niregana etorri ziren, hiltzeko asmoz, baina azkar ihes egin nuen.

Ez nuen ezer ulertzen, baina gauza bat argi nuen; ezin nuen nire laguna han utzi, haren bila joan behar nintzen. Minutu bat galdu gabe, martxan jarri nintzen. Ur gainera igo

30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

IPUINAK MODALITATEA

eta dragoi handi bat ikusi nuen. Ideia bat bururatu zitzaidan: Dragoia ezagutu nuen lehendabizi, gero haren gainean igo nintzen eta hegan joan ginen nire laguna erreskatatzera. Ur azpian sartu ginen, uretako munstroak gure bila ari ziren, munstro haietaz inguratuta geunden. Dragoiak ahotik sua bota eta munstro gehienak hil zituen, baina oraindik batzuk geratzen ziren, eta dragoia hil zuten.


Ezkutaleku bat aurkitu nuen ur azpian, han denetarik zegoen; janaria, edariak, deskantsatzeko leku erraldoi bat... eta dena niretzat. Denbora luze igaro nuen han, bitartean ispilu handi bat zegoela konturatu eta ideia bat bururatu zitzaidan: nire aurrean jartzean, gorputza estaltzen zidan eta begiratzen ninduen munstro bakoitzak haren isla ikusiko luke, haietako bat nintzela pentsatuko lukete, eta nire lagunarenganaino iristeko aukera izango nuke arazorik gabe.

Nire ezkutalekutik atera, eta egindako plana frogan jarri nuen. Beldur handia pasa nuen, atzetik ikusgai nintzelako. Nire lagunarenganaino heldu nintzen arazorik gabe, baina munstro batek atzetik ikusi ninduen, lagunari soka askatzen nion bitartean. Guztiak nire bila etorri ziren, laguna han utzi behar izan nuen, eta nire ezkutalekura itzuli nintzen. Munstroak atzean nituen, ezkutalekuko atea haien aurpegian itxi nuen. Denbora asko egon ziren ate atzean nire zain, eta bat-batean ezusteko bat gertatu zen; ez dakit zergatik, baina munstro guztiak goraka joan ziren.... ortzadarraren bila.

Ezkutalekutik atera eta denbora probestuz, laguna askatu nuen, baina arazo bat nuen; ortzadarra desagertu, eta munstroak inguratu gintuzten.

Pixkanaka nire ingurua desagertzen hasi zen... lagunaren aurpegia baita ere... ur azpian arnasa ezin hartu... eta arnasketa sakon batekin, begiak ireki, eta ospitaleko ohean nengoela ikusi nuen.

Dena amets bat izan zen.



30. Certamen Literario Infantil en Euskera

BERTSO PAPERAK / BERTSOS ESCRITOS

MARGOKETA

Noa Luqui Bretón

1. SARIA:

Lehen Hezkuntza 3.E maila

1º PREMIO:

*Educación Primaria 3ºE
curso*

(Doinua: Maritxu nora zoaz?)

Margoketa ta dantza
zelako gogoia
eta gogokoena
nik dakat margoa.

Lantzen ari naizena
da lasaitasuna
eta irudimena
hau da poztasuna.

Hartzen dudana pintzela
ura ta akuarela
ene! jarri mantala
zikinduko dela.

Hori ikusiz gero
sortzen da zalantza
ama egon da ero
nahiago luke dantza.

EUSKARA

Ibai Uriz Gaztanbide

Saioa De Carlos Aletxa

Duna Villar Yaniz

1. SARIA:

Lehen Hezkuntza 4.E maila

1º PREMIO:

*Educación Primaria 4ºE
curso*

(Doinua: Markosek egin eban.)

Hizkuntza ederra da
euskara benetan,
hiri eta herritan
eskolan, parkean.

Agure ta umeak
euskaraz benetan,
polita da entzutea
euskara lantzea.

Kalean oso gutxi
entzuten da euskaran,
ta gazteak kalean
hizkuntza erdaran.

Benetan betirako
ta bihotzerako,
euskara egon dadin
gure mingainetan.

XARMANGORRIAK

Nigin Zurbano Saenz

1. SARIA:

Lehen Hezkuntza 6.F maila

1º PREMIO:

*Educación Primaria 6ºF
curso*

Goizean izan det
arazo txiki bat,
errieta eman didate
eta lagunentzat.

Beti esaten dute
ez dute beste hitza,
injustizia dirudi
niretzat bizitza.



30. Literatura Lehiaketa Haurrentzat Euskaraz

AURKIBIDEA / ÍNDICE

IPUINAK | CUENTOS

Lehen Hezkuntza · Educación Primaria

SARIA PREMIO	IZENBURUA TÍTULO	EGILEA AUTORA	ORR PÁG.
3. E			
1. saria	ADIKIZIOA	Noa Luqui Bretón	4
2. saria	LEONTZIO	June Carlos Hernández	4
3. F			
1. saria	ERRALDOI ESNATU ZEN NESKA	Iratxe Villafranca Ayesa	5
2. saria	ARDI BELTZAK	Aitor Cordon Muñoz	5
4. E			
1. saria	DINOSAURO BOTERETSUA	Duna Villar Yaniz	6
2. saria	AZTI-ELEKTRIKOA	Ibai Uriz Gaztanbide	7
4. F			
1. saria	NEREA ETA BERE TXAKURRA	Ainhoa Puyol Azqueta	7
2. saria	MIKE ETA MOKOTXURI	Markel Jimenez Goicoechea	8
5. E			
1. saria	EUSKAL MUSEOAREN MISTERIOA	Nahikari Elosegui Domínguez	9
2. saria	SUJAILAREN BIDAIA	Uxue Arbizu Diosdado	11
5. F			
1. saria	JANTZAREN OPANA	Ane Arbizu Diosdado	11
2. saria	ELKARREKIN HOBETO	Josu Barber Ducay	13
6. E			
1. saria	SARAIK NESKAK DITU GUSTUKO	Eider Astiz Isasi	14
2. saria	AMETS BAT	Nahia Luqui Bretón	14
6. F			
1. saria	ESKUZABAL IZATEAREN BALIOA	Leire Cestau Lertxundi	15
2. saria	ESPERO EZ NUENA	Jare Biurrun Mendia	16

BERTSO PAPERAK | BERTSOS ESCRITOS

Lehen Hezkuntza · Educación Primaria

SARIA PREMIO	IZENBURUA TÍTULO	EGILEA AUTORA	ORR PÁG.
3. E			
1. saria	MARGOKETA	Noa Luqui Bretón	18
4. E			
2. saria	EUSKARA	Ibai Uriz Gaztanbide Saioa De Carlos Aletxa Duna Villar Yaniz	18
6. F			
1. saria	XARMANGORRIAK	Nigmin Zurbano Saenz	18

Two orange paper scraps with irregular, torn edges are positioned on either side of the main text. One is located to the left and slightly below the text, and the other is to the right and slightly above it.

barañain.eus

30. Literatura lehiaketa haurrentzat
30 Certamen literario infantil en euskera